malenetan ere presoak gogoan

KALAPUTXI

ETXERA!

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2007ko uztaila / 64. zenb.

FEDE
Villacorta Agirre
itsastarren arduraduna lehorrean

Praileaitz I,
eskualdeak behar duena

Hondurasetik
eskerrona adieraztera

Estetika eta Terapia Institutoa

1- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

2- Masajea :

- Estetikoa
- Terapeutikoa

3- Drenaje linfatikoa

4- Depilazioak :

- Beroa
- Hotza
- Elektrikoa
- Laserra

5- Pedikura - Manikura

6- Makillajeak

7- Mikropigmentazioa

8- Hidromasajea

9- Kontsulta medikoa

10- Dietista

Pisua
kontrolatzeko
dietistaren kontsulta.

Zure itxura hobetu
gure aholku
eta
gorputz tratamenduekin!

Zeure gorputzeko azal
goxoaz gozatzeko
gorputzeko edozein
ataletan
depilazio azkarra,
progresiboa eta
segurua

LASERRAREN
PLAZERRA
PROBA EZAZU!

ESKAINTZA BEREZIAK!

Beheko Plazan, 5
Tlfnoa.: 943 60 42 29
20830 Mutriku



Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 60 34 68 / 635 74 83 93
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko udala
Tirada: 2.000 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

Mutrikuko Udaleko Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza -k
diruz lagundutakoa

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6-7
Bi hitzetan	8-9
Komikixa	9
Karenka	10-11
Malenetako argazkiak	14-15
Gizartia	17
Natura	18-19
Elkartasuna	20-21
e-gazte	22-23
Zorion agurrak	24
Argazki zaharrak	25
Agenda	26

IRITZIA

OPOR LUZEAK

Hauxen da egun motela... bazkalosteko nagiak jan behar nau sofan erdi etzanda. Badatoz udako egun alferrak. Zeru goibelaren azpian bero egiten du, sargori, eta salako leiho erdi irekitik kaleko ahotsen oihartzuna iristen da. Ume bat lagunari deika, diarka. Behin, bitan, hirutan. Balkoira atera da halako batean, eta ea ez al duen kalera jaitsi behar, bere zain dagoela.

Memoria txarra dudan arren, haur nintzeneko garaiak ekarri dizkidate burura, eta orduko uda eta oporrak. Benetako oporrak udakoak izaten ziren, opor luzeak. Ikastola amaitzen zen egunean, guretzat ikastola zen amaitzen zena eta ez ikasturtea, mundu berri bat zabaltzen zen gure aurrean.

Orduak pasatzen genituen kalean jolasean, harik eta amaren bat leihotik deiadarka hasten zen arte, bazkaltzeko ordua zela esanez. Jan, bazkalosteko telebista seriea ikusi eta berriro kalera. Inoiz galdetzen ziguten, nora zoaz? Noiz bueltatuko zara? Baina galdera horiek ez zeukaten inongo zentzurik guretzat, Ulises txikiak ginen geure kaleko Odisean. Gure bidaiak ezin ziren aurretik programatu.

Orain ere, urte batzuk pasa ondoren, uda iristean ezinbesteko hizketagai bihurtzen dira oporrak: ta ze, aurten ze plan? Eta elkarri kontatzen dizkiogu geure asmoak, bidaiak, ezagutu nahi ditugun paraje berriak. Urte osoko basamortuaren erdian topatutako oasi zati txikia bezala.

Eta ez gara konturatzen, behin eta berriz ume garaira bueltatzeko ahaleginetan baino ez gabiltzala: orduko jolasak, orduko abenturak, orduko opor luzeak.

Aitzol Astigarraga

intereseko telefonoak

OSASUNA

Anbulategia (Osakidetza)	943 60 43 00
DYA Mutriku	943 60 33 17
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Odol emaleen taldea	943 60 39 30
Javier Otxagabia botika	943 19 50 26
Lon Apraiz botika	943 60 32 50
Larrialdiak	943 461 111

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua	943 60 70 48
	679 16 25 00
Udaletxea	943 60 32 44
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Posta zerbitzua	943 60 30 44
Bake Epaitegia	943 60 70 49
Itsas etxea	943 60 34 00

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 36 27
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Musika eskola	943 60 37 80
Haur eskola publikoa	943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua	943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza	943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza	943 60 38 71

ZEBITZUAK

Pesa	902 10 12 10
Eusko Trenbideak	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05
Hondarribiako aireportua	943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia	943 60 41 82
Kiroldegia	943 60 31 75
Gasolindegia	943 60 32 10
Miruaitz Frontoia	943 60 46 79

Botikak

OTXAGABIA: 689 58 57 59
APRAIZ: 630 05 50 97
ZALDUEGI: 669 26 22 01
RIVEIRO: 667 33 88 90

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik	Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
	Zapatuak	10:00 / 16:30
	Jai egunak	10:00 / 19:30
Donostiatik	Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
	Zapatuak	11:30 / 19:30
	Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

AUKERAK:

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:
   1- 6:10ean hasi eta 20:10 arte orduro.
   2- 6:40ean hasi eta 19:40 arte orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

DEBARA

Astegunetan: 7:20tik 21:20ra, orduro / Jai egunetan: 8:20tik 21:20ra. orduro

ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro / Jai egunetan: 7:55etik 20:55era, orduro

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA

Debatik 6:44-7:44-...-21:44
Donostiatik 5:47-6:47-...-20:47
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira

DEBA – BILBO – DEBA

Debatik 6:43 -7:43 -...-20:43
Bilbotik 6:00 -7:00 -...-20:00
Jai egunetan 8:43etan hasiko dira

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / ... / 21:43 Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik 6:13 / 7:13 / ... / 21:13 Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako Botikak (Mutriku – Deba)

UZTAILA	
16tik 19ra	Amaia Zalduegi
20tik 22ra	M.C. Riveiro (zapatu goizean, Lon Apraiz)
23tik 29ra	Lon Apraiz
30tik 1ra	M.C. Riveiro

ABUZTUA	
1 eta 2	M.C. Riveiro
3tik 5era	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Jabier Otxagabia)
6tik 9ra	Lon Apraiz
10etik 12ra	Jabier Otxagabia
13tik 16ra	Amaia Zalduegi
17tik 19ra	M.C. Riveiro (zapatu goizean, Lon Apraiz)
20tik 23ra	Jabier Otxagabia
24tik 26ra	Lon Apraiz
27tik 30era	M.C. Riveiro
31	Amaia Zalduegi

IRAILA	
1 eta 2	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Jabier Otxagabia)
3tik 6ra	Lon Apraiz
7tik 9ra	Jabier Otxagabia
10etik 13ra	Amaia Zalduegi
14tik 16ra	M.C. Riveiro (zapatu goizean, Lon Apraiz)
17tik 20ra	Jabier Otxagabia
21etik 23ra	Lon Apraiz
24tik 27ra	M.C. Riveiro
28tik 30era	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Jabier Otxagabia)

AB AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos, S.A.
Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.euskalnet.net
> Etxea apaintzeko proiektuak
> Altzariak
> Sukaldeak
> Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

gutunak

Gogoratu gutun guztiek agertu behar dutela nork idatzita datozen, nahiz eta ezizenez, inizialez edo bestela sinatuta argitaratu. Ez da argitaratuko norena den agertzen ez duen gutunik.

Utzi esateko duzuna Barrenkalea, 12 - beheko buzoian edo kalaputxi@topagunea.com helbidean.

MUTRIKUN DENOK "BUSTI" GAITEZEN!

Ama lurra neurrigabeki "berotzen" eta ahultzen doan heinean, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Mutrikun Eusko Jaurlaritza, alderdiak eta herritarrok goitik behera "bustitzen" hasi beharrean gaude benetan blai gelditu arte.

Mutrikuko portuaren inguruan herritarrok ez dugu informazio objetibo larregirik izan. Horregatik, zurrumurruek diotenez, kostaldeko beste herri batzuei eskaini zitzaien proiektuari ezetz esatean, Mutrikuko alderdiek baiezkoaren apustu sendoa egin zuten. Baina herrigintzarako berebiziko garrantzia izan dezakeen honetan (eta etxebizitza berrien kopuru itzela, Sasiolako azpiegitura, harrobien ustiaketa...) herriak ez du iritzi eta parte hartzeko eskubiderik izan... Ezta erabakitzeko eskubiderik...

Gaur egun betiko hondartzaren bi herenak dike erraldoiaren eta zentral maremotrizaren plangintzarako erabiliak direnean, noiz galdetuko da herriak zer nahi eta behar duen? Oraintsu, Pasaiako superportuaren gauzaketarako Mutrikuko "hondartza" (???) eta moila erabiliak izango direla prentsan irakurri dugunean, herritarroi noiz zabalduko zaizkigu honen guztiaren ardatzak eta helburuak?

Bitartean, oraindik ukitu gabe (baina proiektu txikitzailearekin guztiz mehatxatuta) dagoen itsas-piszinan herriko eta inguruetako umetxo, gazte eta helduek salto egin dezagun garapen jasanezina eta interesatuari trufa eginez!.

I. A.

LEGEA LEGE ALA KONPONBIDEA?

Euskal Herriak historian zehar beti jasan behar izan du lege arrotzen zama eta eragina. XVI. mendetik hasi eta gaur arte, hainbat pasarte eta adibide beltz daukagu zoritxarrez. Frankismo garaian ere, Madrilen onarturiko legeen bitartez, hainbat ondasun lapurtu zituzten eta kasu askotan beste herritarren esku geratu ziren. Legea lege! zioten frankistek!

Estatuak, bere interes ekonomiko eta politikoak aurrera eramateko, edozein tresna erabiltzen du eta Euskal Herriaren gatazka politikoari irtenbide demokratikoa eman beharrean, errepresioa, kartzela, tortura eta "Alderdien Legea" moduko tresnak ditu gogoko.

Mutrikun eta hainbat herritan eman diren ilegalizazioak kontestu horretan eman dira. Ez da izenen kontua, erabaki politikoa da, ondo kalkulatua eta pentsatua gainera. Baina oraingoan ere, legea lege! esanez eratu du Mutrikuko udala PNVk.

Madrilek sorturiko lege maltzur eta faxista onartuz, herri borondatea lapurtu da eta herriak emandako gutxiengoa, gehiengo bilakatu du PNVk bere mesederako.

Portaera hau oso larria da eta erabaki horren azpian botere gosea dago. Auzia ez da PNV eta ANVren artekoa, ez, PNV eta herri osoaren artekoa baizik, ez dagokion gehiengoa erabiliz beste guztion eskubideak zapaltzen dituelako.

Errespeto falta ikaragarria da herriak lau zinegotzi eman eta zazpi hartzea, eta jokaera honek herritarron elkarbizitzari aparteko samindura ezarri dio.

Guk, ANVk, gure eta heritarren eskubideen alde borrokatuko dugu eta errespetoaren eta demokraziaren ikurra eramango dugu leku guztietara. Kalean zein udalean gure eta herritarron eskubideak aldarrikatuko ditugu, etengabe eta etsi gabe gainera.

Irtenbidea, ordea, konponbidea da. Izaniko harremanetan eskaini dugu gure borondatea eta adostasunerako modua: Herri borondateak emandako emaitzen araberako Batzordea sortu eta martxan jarri. Batzorde honek (4,4,2,1) gai desberdinen hausnarketa bultzatuko luke, erabakitze ahalmenarekin. Plenoek erabaki hauek errespetatuko lituzkete.

Beste guztiok prest gaude irtenbide honen inguruan harreman mahai bat osatzeko eta guztion artean Mutriku bultzatzeko. Bide hau posible da, borondatea izanez gero.

Saiatuko gara? Prest gauzkazue.

Mutrikuko EAE/ANV

GOTZON ARRANDEGIA
Ondo pasa Malen jaixak!
Gotzon Elzagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59

Andonegi Asesoría
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZUE!
Erdiko kalea, 3 behea - Tel.: 943 60 39 05 - Mutriku

ERAIKUNTZAK
SAGARMIÑA, S.A.
ETXEGINTZA ETA BERRIKUNTZA
San Agustin kalea, 11 - Tel eta Fax 943 60 41 89
Posta kutxa: 71 - MUTRIKU (Gipuzkoa)

Oporrak era ezberdinean biziz

Gregorio Arreitunandiak iazko maiatzean burutu zuen Donejakue bidea, baina oraindik bizi-bizirik ditu irudiak. Itziar Egurbide, berriz, etorri berri da makrobiotika etxe batean opor egun batzuk igaro ondoren. Biak gustura daude izan dituzten bizipenekin.

Aspaldiko ametsa al zenuen Donejakue bidea egitearena, Gregorio?

Hainbestetan entzuna nuen eta jakinmina sortu zitzaidan. Lana utzi nuenean hartara murgiltzea erabaki nuen eta ekin nion informazioa biltzeari. Behin guztia esku artean nuela Iruñeara abiatu nintzen eta handik autobus batean Orreagaraino iritsi nintzen. Handik hasiko nuen nire ibilbidea.

Kirol ala erlijio arrazoiak bultzatu zintuen horretara?

Galdera bera egiten dizute hastera zoazenean. Hasteko egunean liburuxka bat ematen dizute eta han zure etapa guztiak markatuta gelditzen dira. Nire helburua kirola zen eta hartara bideratu nituen nire urratsak.

Nola planifikatu zenuen ibilbidea?

Informazio liburuxkan ematen dizkizute aholkuak edo antzekoak. Ni oso ondo sentitzen nintzen eta 15 egunetan egitea zen helburua, dena den, honegatik edo hargatik egun bat gehiago egin nuen, hau da, 16 egun. Denetara, 755 Km. dira, baina, nire ustean, hainbeste herri-lanengatik askotan saihesbideak hartu behar dituzula, horregatik uste dut kilometro gehiago egongo direla esandakoak baino. Liburuxkak egunean 47 km. egitea aholkatzen du, baina nik dexente gehiago egin nituen. Oso indartsu sentitzen nintzen, eta goizeko 6etan prest nengoen bideari ekiteko. Zenbait aterpetxetan arazoak jartzen zizkidaten hain goiz abiatu nahi izateagatik, baina ia beti ateratzen nintzen nik nahi izandako orduan. Goiz atera nire helmugara goiz iristeko, hala atsedenerako denbora gehiago nuen. Bestalde, aterpetxeetan jendea 5ak alderako hasten da dantzan eta zuk zer egiten duzu ohean lorik egin ezin baduzu? Egunean 10-11 ordu ematen nituen oinez. Gosaldu ondoren ekin bideari. Atseden hartu eta mokadutxoren bat jan, ura edan eta ekin berriz bideari. Eguneko helmugara iritsi ondoren, aterpetxera joan, dutxa hartu eta atseden hartu. Afari legea egin eta ohera. Horixe zen nire eguneroko bizitza.

Udaberria edo udazkena dira sasoirik onenak Donejakue bidea egiteko.

Zer-nolako aterpetxeak aurkitu dituzu?

Denetakoak; onak, hobeak eta eskas samarrak. Gehienak eliza, komentu edo antzekoen etxeak dira. Horietan borondatea eman eta dutxa eta ohea duzu. Aterpetxe pribatuak ere badaude eta hauetan 6 euroren truke dutxa eta loa dituzu.

Zer-nolako jendearekin ibili zara?

Ibilbidearen zati handiena bakarrik egin dut baina beti aurkitzen duzu bidean jendea. Hiru egunetan asturiar batzuekin ibili nintzen; gero aurkitu ditut brasildarrak, kanadiarrak, japoniarrak, txinatarrak... eta gehiengoa frantsesa. Adinari dagokionez, brasildarrak izan ziren aurkitu nituen gazteenak; horiez gain, ia denak 40 urtetik gorakoak.

Uste zenuena bezalakoa izan al da?

Gogorra dela esango nuke, nik egin dudan moduan eginda, jakina. Paisaia ezberdinak ikusten dituzu. Hau eta honen ingurua berde-berdea. Behin Burgos, Leon eta Palentzia inguruek, berriz, aldaparik ez dute, dena laua da, baina birikak zabaldu zitzaizkidan Galizia ingurura iristean. Aldapa eta mágal handiagoak, baina hobeto hartzen nuen arnasa.

Merezi izan al dizu esperientziak?

Bai, gustura egin nuen baina ez dut uste berriz egingo dudanik.

artizar
fisio lan taldea
San Agustin, 10 behea - Mutriku - 943 60 36 55
masajeak baino askoz gehiago

JOSE ANGEL ANSOLA
"TAXI" zerbitzua
Tel.: 943 60 30 06
MUGIKORRA: 607 60 30 22
Txurruka plaza 4, 4.a
20830 MUTRIKU



> Makrobiotika etxe honetara doazen gehienak gaisotasunak osatzeko helburuarekin joaten dira.

Esan bezala oraindik bidaia-poltsa desegin aurretik hartu gaitu Itziarrek. Nora joan jakin ez eta lankide batek hitz egin omen zion Frantziako etxe honetaz...

Ez neukan inora joateko asmorik eta lankide baten bidez jakin nuen honen berri. Bera joatekoa zen eta ea nik lagunduko nion. Aukera ezberdin bat izan zitekeela eta baietz esan nion. Hamar egun egin ditugu bertan.

Ezer jakin gabe eta ezusteko ona...

Guk uste genuen nekazal-turismo baten antzeko zerbait izango zela baina ez da hala. Etxe-baserri handi bat da. Apala, luxurik gabea baina atsegina. Oinarrizko beharrak betetzen ditu eta kito. Urte osoan dago irekita baina uda izaten da garairik jendetsuena. Abuztuan ehun lagunetik gora bildu izan omen dira. Ez da hotela. Zu hara iritsi eta zure oheko izarak ematen dizkizute. Ohea zeuk egin behar duzu. Etxe handi horretan, nagusiaz gain, beste bederatzi lagun bizi dira. Eta hain langile gutxi ezin denetara iritsi, beraz zeuk eraman behar duzu zure gelaren ardura.

Berehala joaten egunak...

Gure helburua oporrak beste modu batera disfrutatzea izan da. Pirinioak gertu daude eta egin ditugu irtenaldiak mendi aldera. Errekan bainatu... eguraldiak ez digu asko lagundu baina hala ere oso leku ederra da hura eta bere ingurua. Irteeretarako bazkaria eramaten duzu eta ez duzu batere goserik pasatzen. Oso ondo eramaten da dieta. Egia da, baita ere, joan garenok ez dugula gaisotasun larririk eta dieta ez da hain gogorra. Minbizia zutenak ere ezagutu ditugu bertan eta sinismen handia zuten jateko modu honetan eta bertako filosofiarekin.

Leku ezberdinetatik joanak...

Kataluniatik eta Espainiatik jende mordoa joaten da, euskaldunak gutxiago, Hungria, EEBB, Italia... ia mundu osoan da ezaguna etxe hau. Gaitz larriak dutenak eta filosofiarekin bat datozenak biltzen dira bertan. Gu 20 lagunetik gora bildu ginen eta harreman polita izan dugu gure artean. Adinari dagokionez, gazte batzuk tartean baina orokorrean jende heldua.

Esperientzia ahaztezina...

Bertan egonda ez da gogorra eramaten duzun dieta. Filosofia honetan sukaldeak du izugarrizko garrantzia. Denbora luzea ematen da janariak prestatzen. Dena oso poliki eta soseguz egiten da. Janaria gozoa da, ederra. Jaten ere denbora luzea ematen da. Oso ondo mastekatu behar da. Gure gorputza yin eta yan omen da eta gure jateko ohituretan yin gehiegi sartzen omen dugu. Helburua bi elementuok orekan egotean datza. Niretzat behintzat oso esperientzia ona izan da eta beste edozeini aholkatuko nioke antzeko zerbait egitea.



Malen jai zoriontsuak
PANADERI – BERRI
mutrikuar guztioi
C/ BARREN KALEA, 4 TEL. 943 60 33 03
MUTRIKU

Ondo pasa Malen Jaixak!
ATXUKALE
JOSTAILU DENDA
TEL.: (943) 60 39 59
Beheko Plaza, z/g
20830 MUTRIKU
Gipuzkoa

PLAIEROETAN MUTRIKUARRAK NAGUSI

Urtean zeharreko denboraldia amaituta, gero eta maizago ikusten dira han-hemenka umeen arteko futbol txapelketak. Horietako bat izan da Athletic Clubek antolatutako hondartzako 7ko futbol txapelketa. Bizkaiko hondartzetan kanporaketak jokatuta, finalerdiak eta finalak ekainean jokatu ziren Sopelako Arrietara hondartzan, eta hantxe izan ziren mutrikuarrak, Ondabarro eta Kristozulo taldeak, hain zuzen ere.

Lorenek, Iñakik eta Lukenek entrenatutako benjamin kategoriako Kristozulo taldeak penaltika irabazi zuen garaikurra, Frutas Salado taldearen aurkako partida 3na berdinduta amaitu ostean.

Kaxintok, Joxuk eta Javik entrenatutako alebin kategoriako Ondabarro taldeak, berriz, 7-0 emaitzarekin nagusitu zitzaion Granja Larrabe taldeari. Aurtengoa bigarren txapela izan zen Ondabarrokoentzat, iaz lehenengoa lortu ondoren.

Finalak jokatu ondoren, Jose Angel Iribarren eskuetatik jaso zituzten irabazleei gordetako garaikurrak. Poz eta algara, autobusean sartu eta Mutrikura itzuli ziren autobusa bete zuten jokalari eta jarraitzaileak.

Batek daki datozen urteetan Athleticen edo Errealean edo Eibarren mutrikuar horietakoren batzuk izango diren. Batzuk dagoeneko heldu dira.

BI MUTRIKUAR GRANOLLERSeko "CUP 07"an

Lau mutrikuar eraman ditu AKABA BERA BERA eskubaloi taldeak jubenil mailako JAUJA taldetik: Ainhoa Mugertza, Jenni Landa, Maite Mugartegi eta Leire Lizardi. Hauetatik bik, Ainhoa Mugertza eta Jenni Landak, gainera, Granollerseko (Bartzelona) "Cup 07"an parte hartu dute. Torneo hau bederatzigarren urtez jarraian antolatzen du Granollers eskubaloi taldeak oinarrizko taldeentzat, eta ekainaren 27tik uztailaren 1era arte iraun du. Aur-tengo zifrak kaleratu ez dituzten arren, iazko errekorra gainditu dutela diote, 21 naziotako 140 taldek hartu baitzuten parte 2200 jokalariekin.

Gure neskek lau partidu irabazi zuten, eta bi galdu: bata, Norvegiako Narjaarden kontra, eta bestea, final zortzirenetan, La Ribarroja taldearen aurka. Aurreko partidak Suediako Ik Savehof 3, Norvegiako Klementsrud II, Islandiako FH, eta Espainiako La Roca taldeen aurka izan zituzten.

Esperientzia polita izan dute gure herriko jokalariek maila horretako torneo baten parte hartzearekin, eta oso pozik bueltatu dira, hango antolakuntza eta lagun artea bizi izan ondoren. Aupa Jauja!



IV. CICLISMO INDOOR EGUNA



Uztailaren 14an IV. Ciclismo indoor eguna ospatu da Mutrikun. Urtero bezala, herriko portua izan da spinnig saio hauen eskenatokia. Bertan 500 pertsona inguruk jardun dute saio ezberdinetan banatuta, 105 bizikleta izanik partehartzaileentzat. Lehenengo saioa arratsaldeko 6etan hasi zen eta gaueko 12ak arte luzatu zen ikuskizuna. Ordubeteko iraupena izan zuen saio bakoitzak. Hau guztia aurrera eramateko 30000 watio argindar eta 3500 watio soinu erabili ziren.

Saioak zuzentzen herriko monitoreez gain –Laura Anda, Itziar Ormaetxea, Luis Ferreño eta Naiara Uranga– beste hiru monitore ere etorriko ziren: Paco Gonzales Tenerifekoa, Lluis Noguer Bartzelonakoa eta Xabi Epelde Gasteizkoa. Hiru kirolari hauek nazioarteko kirolariak izateaz gain, mundu mailan izen handiko irakasleak ere badira, izan ere Keiser enpresako irakasleen formakuntzaz arduratzen dira mundu osoan, Lluis Noguer Ameriketan eta Paco Gonzales Asian.

Irakasle paregabeak bertan zirela aprobetxatuz, goizean ikastaro bereziak egon ziren. Goizeko 9etan hasi ziren klase teorikoak; lehenengoa "teknika, ariketak eta intentsitatea... pedalei eragitea baino zerbait gehiago" izeneko ikastaroa, eta ondoren "Cardio antola zaitez" izenekoa. Klase hau eguerdiko ordu biak arte luzatu zen. Ikastaro hauetan teknika eta teoria tartekatu ziren eta bertan parte hartu zutenek arratsaldean praktikan jarri ahal izan zuten bertan ikasitakoa.

Aukera ezin hobea izan zen ondo pasatuz norbere buruari osasuna oparitzeko, izan ere Spinning-a ahalegin fisiko aparta da egoera fisikoa hobetu nahi duenarentzat, ariketa kardiobaskular gogorra baita. Eta ordu betean 600 kaloria erre daitezkeenez, aukera paregabea da soberan dauden kilo horiei aurre egiteko.

HITZAk ATSEDEN

Lea-Artibai eta Mutrikuko hitza

Herriko eta eskualdeko berrien berri euskaraz ematen digun eguneroko prentsa idatziak, HITZAk, atseden hartu behar du udan. Langileen oporraldia dela eta, uztailaren 25ean helduko da azken egunkaria Mutrikuko ia 350 etxe eta establezimendutara.

Oporraldia bukatuta, irailaren batean berriz hasiko da HITZA buzoietan sartzen eta mutrikuarrek berriro izango dute aukera egunerokoak etxean jasotzen.

komikixa — gotzon santander



FEDE VILLACORTA AGIRRE

ITSASTARREN ARDURADUNA LEHORREAN

Oraindik ere, ohiturari jarraituz, "kabomarra" da mutrikuarrontzat. Merkantzia-ontziteriako kapitaina da, eta hemezortzi urtetan munduari biraka ibili ondoren, berrogei urterekin lehorreratu zen. Egun, Espainiako Fomento Ministeritzako funtzionario gisa, Getariako kaian du bulegoa, eta "Punta Anarri"tik Bizkairaino zabaltzen zaio ardura-eremua. Bere esanetan inoiz errespetoa galdu behar ez zaion itsasoari begira egin du solas Kalaputxirekin gure ondarrutar honek.

Kaixo, Fede. Nola atera zinen itsas zabalera?

Egia esan, nire familian ez dut ezagutu itsastradiziorik. Aitak maisutzan jardun zuen Ondarruan, eta ama, ondarrutarra izanik, ziurrenik itsasoarekin loturaren bat izango zuen, baina ez dut horrelakorik hurbiletik ezagutu. Anaia zaharrena izan zen irrati-telegrafista gisa aritu zena merkantzia-ontzietan, eta, agian, hortik datorkit itsasorantz begiratu izanarena.

Batxilergoa Bilbon egin ondoren, Portugaleteko nautika eskolara joan nintzen, eta han egin nituen pilotu eta kapitain ikasketak. Bertan ari nintzela egin nituen praktikak pilotu bezala, eta ondoren kapitain bezala jardun dut lanean, beti merkantzia-ontzietan, hemezortzi urtetan.

Lehorreratzea erraza suertatu al zitzaizun?

Familiarengandik urruti egotea beti egiten da zaila; nire kasuan, hilabeteak egiten nituen etxera etorri gabe, emaztea eta semea hemen utzita. Alaba jaiotzeko zegoenean erabaki nuen lehorrean gelditu eta Fomentoko Ministeritzak orduan atera zituen lanpostuetarako oposizioak prestatzea. Ordura arte, militarrek betetzen zituzten zenbait lanpostu, portuetako ardurak besteak beste; antolakuntza zibilera pasatzean, merkantzia-ontziteriara, lanpostu horietan jarduteko aukera zabaldu zitzaigun. Hau 1990 urtean izan zen. Oposizioak gainditu ondoren, lehenengo hamar hilabeteak Madriler jardun nuen lanean salbamendu koordinazioan. Kapitainiak antolatu zirenean Pasaiara pasatu nintzen eta bi hilabetera Getariako bulegora. Hor dihardut gaur arte.

Bi hitzetan errepasatu dugu historia, baina errealitatea askoz gogorragoa izan zen. Urte eta erdiko ziurtasunik eza ez zen izan batere atsegina; hala ere, egindako esfortzuak amesten nituen fruituak eman zizkidan, eta pozik nago.

Getarian duzu bulegoa; baina, zure lan esparrua zabalagoa da. Ez da hala?

Kapitaintzak sortu zirenean, lehengo egitura eta esparruekin jarraitu zen; baina, denbora pasa ahala, ardura eremuak aldatzen joan dira eta hirutik bira jaitsi: Pasaia-Donostia

Itsasoari ez zaio errespeturik galdu behar; baldintzak berak jartzen ditu beti.



Txaleko batek edo bengala batek bizia salba dezake.

eta Zumaia. Bata, mugatik eta "Punta Anarri"ra (Orio baino haruntzago), eta bestea, hortik Bizkairaino. Bulegoa lan gehien gertatzen den lekuan kokatu da: Getarian. Beste kaietan ere izaten naiz; Mutrikun, hasieran, bi egunetan egoten banintzen ere, gaur, asteartee-tan baino ez naiz izaten.

Zeintzuk dira zure ardurak?

Ni, nolabait esateko, gobernu zentralaren funtzionarioa naiz, beraz, ez dut ahalmenik Eusko Jaurlaritzara transferituta dauden eremuetan, hau da, barne urak deitzen direnetan, kostatik hiru edo lau milatara eta ibaietan mareak eragina duen lekuetan. Hala ere, normalean, nik ematen ditudan iritziak kontuan izaten dira.

Nire ardurapean daude, besteak beste, itsas segurantza, kutsadura, ainguratze baimenak eta itsasontzien despatxuak deritzenak.

Itsas segurantza arloan, larrialdiak eta istripuak begiesten dira, eta, baita, pertsonen zein txalupen baldintzak. Kutsadurari dagokionez, berriz, maila ezberdinetan sailkatzen da neurriaren arabera: kutsadura handiak Madril eta Santanderretik koordinatzen dira, eta ertainak zein txikiak Bilbotik. Ontzi guztiei zabaltzen zaizkie triptiko batzuk, uretara zer bota daitekeen eta zer ez agertuz. Hala ere, urte honen bukaerarako arau berriak jartzeko asmotan dira, eta kontrol zehatzagoa egingo da lehorrean: karterreko olioak lehorreratu direlako agiriak exijituko dira, adibidez.

Gure kaian dauden aisirako txalupei zer eskatzen zaie?

Pertsonen baldintzen artean: osasun egoera mediku agiri bidez, eta erabili behar den ontziaren eta tripulazioaren araberako titulazioa. Ontziari begira: agiriak, segurtasun neurriak eta ekipamendu ezberdinak kategoria bakoitzean, urruntasunaren arabera zazpi itsasgune baitaude sailkatuta. Dena dela, Kalaputxi aprobetxatuko dut esateko edonork edozein duda edo arazo izanez gero, lasaitasun osoz ager dadila niregana, bere eskubide bat da eta; azalpen guztiak emango dizkiodala, itsasora lasai irteteko moduan. Zer esanik ez, ulertzeko zailtasunak dituztenei edo irakurtzea gustatzen ez zaienei.

Zein aholku emango zenizkieke hau irakurtzen ari direnei itsasora irten aurretik?

Lehenengo eta behin itsasoari inoiz ez galtzeko errespeturik, baldintzak, beti, berak jartzen baititu. Ondoren, ingurukoei agertzeko: noiz eta nora irteteko eta noiz bueltatzeko asmoa duten. Eguraldiaren berri jabetzeko: egun, oso maiz ematen dira parteak eta ez da asko kostatzen. Ontziaren mantenimenduan ardura berezia izateko; txalupa asko eta asko denbora luzean geldirik egoten dira, eta aurrez begirada egoki bat ematea behar-beharrezkoa baita. Kontuan izateko telefono mugikorrak itsasoan operatibitate txikia eduki dezaketela. Eta, azkenik, daukaten segurtasun baliabideak era egokian izateko: txaleko edo bengala batek bizia salba baitezake.

Besterik Kalaputxitik?

Pozez bizitzeko Malen jaiak, eta itsasoan gozatzeko; baina, berriro, errespeturik ez galtzeko gure Kantauri itsasoari.

GORA MALENAK
OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31

NOIZKO EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ?
ATHLETI TXAPELDUN
BARRURA TXIXA EITXEN IKASI
SBE Subandilla buztan beltza
MALENAK ONDO PASA!!!

alazne
optiko-optometrista
Kol. zenb:12176
optika

- Beglen graduazioa / berrikustapen osoa.
- Lentilen adaptazioa.
- Begiko tentsioa.
- Begibitako ikusmena.
- Ikusmen baxukoentzako laguntzak.
- Audifonoak eta bainurako tapoiak.
- Eskaintza bereziak urtean zehar...

... orain eguzkitako graduatuak ditugu!!

Egunero gaude zuen zerbitzura

RPS:385/04 Erdiko kalea, 21 - Mutriku - Tel: 943 60 31 54

ALDATU
DEKORAZIO ETXEA
BEHERAPENAK

Konde Mutriku, 7
20830 MUTRIKU (GIPUZKOA)
Tel 943 60 45 93
concepciongutierrez@wanadoo.es

Vitoria Optika
OPTIKARI - OPTOMETRISTA
> Graduazioak eta audiometriak etxean bertan ere egiten ditugu.
> Audifono digitalak, audifono analogikoak, osagaiak...
> Eguzkitarako osagarriak...
> Ikusteko laguntza bereziak...

Iparkale, 1 - ONDARROA Tel: 94 613 41 38 - mvitoria@cnoo.es

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

Kiropraktiko Zentroa

- Bizkarreko, lepoko eta buruko minak.
- Oin, orkatila eta belauneko arazoak.
- Sorbaldako arazoak.
- Hernia diskala.
- Eskuetako inurridura.
- Tenislari ukondoa.
- Golf-jokalari ukondoa.
- Erditze ondorengo minak.
- Estresa.
- Migraina.
- Ziatika.
- Lunbalgia.
- Zorabioa.
- Sakroilitia.
- Tortikolia.
- Fibromialgia.
- Neke kronikoa.
- e.a.

J. Carlos Sánchez D. C.
Kiropraktikan Doktorea - Glamorganeko Unibertsitatea (Erresuma Batua)

Bergara kalea 23, 2. esk. - Donostia Tel: 943 245 339

heidin denda
BEHERAPENAK
GORA MALENAK!
heidin denda

Beheko plaza 1 - tel: 943 60 37 87

HOTEL
KOFRADI
ZAHARRA

JATETXEA - RESTAURANTE
Ondo pasa Malenak!

Telf. 943.60.39.54
Muelle, 1
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

ARRIZABALAGA
Okela eta janari prestatuak
Gora Malenak!

Pol. Ind. Mijoa, P 2 - 2
Tel./Fax: 943 603 065
E-mail: arrizabsenideak@terra.es
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

Etxeŕe
LORE - TOKI
LORAZAINTZA LANAK,
opari, ezkontza, hiletetarako...
lore eta landare
eskaintza zabala.
Tel.: 943 60 39 97
Mutriku - Ondarroa errepidea



Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

Anton Arrieta Bedayo

Taxi Arrieta
MUTRIKU

TAXI ZERBITZUA Telefonoa: 666 221 999

GARAGARZA
MARGOAK
MARGOKETA LANAK
Tel: 943 60 35 51 / 943 60 31 26 - mug: 639 12 54 17 - Mikel Deuna, 17 - 4. esk.

BERTAN ELKARTEA
OSATZEN DUTEN DENDAK:

ALAZNE OPTIKA 943 60 31 54
ALBARO DENDA 943 60 33 48
ALBOKA 943 60 46 73
ALDANA BURDINDEGIA 626 79 24 56
ALDATU ETXEA 943 60 45 93
ANSORREGI OINETAKOAK 943 60 33 42
APAIN, ESTETIKA 943 60 42 29
ATERPE ALTZARIAK 943 60 44 38
ATXUKALE KIROLAK 943 60 39 59
BERISTAIN LIBURUDENDA 943 60 34 94
BUCEO EUSKADI 943 19 50 88
EGUZKILORE 943 02 92 48
ERDIKO MERTZERIA 665 71 50 39
GUADALUPE ELIKAGAIAK 943 60 35 43
IÑIGO-BELEN 943 60 37 01
IPARRAGIRRE ALTZARIAK 943 60 39 79
IRIPE ELEKTRA SALMENTAK 943 60 33 47
LON APRAIZ BOTIKA 943 60 32 50
MADARIAGA PAPER DENDA 943 60 44 23
MANEIRO LENTZERIA 943 60 31 76
OLAIZOLA UME JANTZIAK 943 19 50 74
PINPIRIN 943 02 91 34
POTERO OKINDEGIA 943 60 36 43
TINKO SPORT KIROLAK 943 19 50 87
TXALUPA LIBURUDENDA 943 60 44 58
URKIRI ELIKAGAIAK943 60 36 80
ZELAIETA JATETXEA (Olatz) 943 60 45 95

Ondo pasa Malen jaixak!

BERTAN

mutrikuko dendarien elkartea

Bertan gaituzu!



EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA



Mutriku herria, Mutriku

Malen jai

maitia, Mutriku guria...



xak 2007

sukaldeak - armairuak - egongelak

logelak - bainuak - liburutegiak

akilape

Mijoa Industrialdea z/g 20830 Mutriku Tfnoa: 943 60 43 34 -Faxa: 943 60 40 76

Aliprox

Zure marka berria

liderra den Talde baten babesarekin

Malen jai zoriontsuak
opa dizkizuegu bezero guztioi!

Uztailak 21, GAZTE EGUNA

12:00 topaketa gaztetxian
12:30 poteo txarangarekin, ondoren bazkari herrikoia, poteoarekin jarraituz arratsaldez. 00:00 manifestazioa goiko plazatik "presoak kalera amnistia osoa" preso eta iheslariei omenaldia ondoren eta gaztetxeko perkuzio taldearekin zubixa plazaruntz txupinazoaz jaiei hasiera ematera. gaztetxean kontzertuak herriko taldeak parte hartuz.

SEGI

Uztailak 22, MALEN EGUNA

egunean zehar, ekimen ezberdinak gaztetxian.
22:30 etatik aurrera kontzertuak gaztetxian

Uztailak 23, AMNISTIA ETA AUTODETERMINAZIO EGUNA

13:00 etan giza katea goiko plazatik beheko plaza — eskubide guztien jabe
13:30 etan ekitaldia beheko plazan — preso eta iheslariak etxera
14:30 etan herri bazkaria beheko plazan, kantaldi, bertso, joko ... arratsaldean kalejira eta gaueko
00:00 etan brindisa preso eta iheslariei eskeinia

Uztailak 24, KUADRILA EGUNA

askatasuna

kuadrilak antolatutako ekimenetan parte hartzera
13:00 etan manifa
bildu eta antolatuz independentzia lortu

Uztailak 25, SANTIXO EGUNA

jaiei bukaera ematako bupinazoa gaztetxe plazan 22:00 etan

gazte asamblada askatasuna segi IA

Egunerokoa, bide bakarra

Euskal Herriak errepresioa jasaten du duela urte askotatik. Estatu espainiar zein frantsesak Euskal Herria zapaldua nahi dute eta beraien esku artean izan dituzten eta guztiok ezagutzen ditugun bide guztiak jorratu dituzte herria beraien menpean izateko, baina ez dute lortu, ezta lortuko ere.

Errepresio mota ezberdin ikaragarri eta gordinak jasan izan ditugu eta tamalez jasango ditugu Euskal Herriaren askatasuna nahi eta askeak izateko borrokan guztia emateko prest gauden guztiok. Jakitun gara eta prest gaude arro eta zintzo. Baina, lehen ere lortu ez zutena, orain ez dute lortuko.

Jaiotzerakoan ez genuen gure jaioterria zein izan behar zen guk hautatu, baina gurasoek bai, eta hemen izatea erabaki zuten, gure herria maite zutelako eta maitatzen jarraitzen dutelako, eta, noski, guri onena ematea erabaki zutelako. Guri bizia hemen ematetik aparte, gure heziketa gure askatasunean oinarritzen zela erakutsi ziguten eta guk herria maitatzen ikasi genuen. Hori guztia gure herriak bi estaturen zapalkuntza jasotzen zuen bitartean.

Beraien eredua esku artean hartuz, Euskal Herriaren berri ikasiz eta askatasuna maitatzen ikasiz, hartu genuen hautua, beraiek bezala geuk ere eskuartean genuen defentsarako tresna guztiekin, Euskal Herria defendatzea eta askatasuna borrokatzea erabaki dugu. Lehen adierazitakoaren haritik, Euskal Herriak errepresio mota ezberdinak jasan ditu, baina Kalaputxi osoa beharko genuke errepresioaren arrastoak zeintzuk izan diren osotasunean adierazteko. Hor daude euskararen aurkakoak, intsumituen aurkakoak, matxinatuen aurkakoak eta abar luzea. Eta adibide modura, hor dugu estatu espainiarrak eta frantsesak, bertokoen laguntzarekin, Euskal Herriaren aurka joateko duten kolaborazioari esker orain-txe betetzen ari den beste eraso bat: Agurtzane estraditatu dute. Baina kolaborazioa ez da gai honetan bakarrik ematen, hor daude torturatzaileak, adierazpen askatasunaren zapaltzaileak, audientzia nazionalak eta abar.

Borrokaren gordintasuna jasan dugu eta jasango dugu, baina badakigu ez dugula etsiko, Euskal Herria askatu arte hemen izango gara eta egunerokoan jarraituko dugu. Jakin badakigu gogorra izango dela, baina gogorra bezain polita da eta egunerokoaren fruitua askatasuna da.

Besarkada bero eta iraultzaile bana Agurtzane, Arrate, Orkatz, Lexuri, Iker, Irantzu, Patxi eta euskal preso politiko iheslari eta sasi artean zaudeten guztioi.

Gora Euskal Herria askatuta!
Independentzia eta sozialismoa! Amnistia osoa!

ASKATASUNA

ESTRATEGIA · URDAITEGIA
Ez gaude denok!
URKIRI
Erdiko Kalea, z/g · Tel.: 943 60 40 50 - 943 60 36 65 · MUTRIKU

aparra BEHERAPENAK
JANTZIAK - PITXIAK
ondo pasa Malen jatxak!
Erdiko-kale, 29
Tfno.: 943 60 45 94
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

Praileaitz I

ESKUALDEAK BEHAR DUENA

Halako batean, Mutrikuko portu berriaren eta Praileaitzen gaiek bat egin dute. Komunikabide batzuetan agertu denez, Mutrikuko portu berria eskualdeko mendietako harria ateratzeko erabili nahi da, oraingoz Pasaiako portua egiteko behar diren "kubo" edo "bañera" erraldoiak (42x34x34 metrokoak) Mutrikun egiteko. Azken bi-hiru urteetan Amenabar enpresak Mutrikuko portutik 20 kilometro inguruan dauden harrobi asko erosten ibili izanak bi gauza esan nahi du: batetik informazio pribiligiatua erabili duela, eta bestetik gauzak serio doazela.

Hortxe konexioa, jakina delako Zeleta harrobia, Praileaitz I dagoen eremuko harrobia, Amenabar Taldeak erosi zuela orain dela bi edo hiru urte, eta bertan dagoen makineria erabili nahi dutela Mutrikun egin nahi duten zementozko "bañera" erraldoi horiek egiteko. Ez dezagun ahaztu gutxienez bi milioi kamioikada material erabiliko direla Pasaiako portua eraikitzeko, eta ez badugu sahiesten zati handi bat gure bideetatik pasatuko da. Hortxe Mutriku-Sasiola bidearen justifikazioa.

Gaur, uztailak 3, lerro hauek idazten gauden momentuan ez da ailegatu oraindik Eusko Jaularitzako babes ofiziala Praileaitz I eta bere inguruarentzat, baina lehengo atala idatzi genuenetik gertatu dira berri interesgarri batzuk. Kalaputxin argitaratutako aurreko atalean Praileaitzen inguruko historia 2007ko martxaren 2an utzi genuen eta hona hemen haren segida:

2007-III-7. MNTen eskutitza Noticias de Gipuzkoa eta Debako Esker Batuarena DV-n, adierazten kobak estaldura galdu duela (fisikoki), filtrazioak direla koba barruan eta benetako babesa eta harrobia geratzeko eskatzen.

2007-III-20. Xavier Peñalver eta bere taldea berriro ere industaketa lanetan hasi ziren Praileaitz I-en.

2007-III-28. Debako elkarte kultural desberdinak Praileaitzen aldeko ekintzak koordinatzeko batzen hasi ziren.

2007-III-29. Aranzadi Zientzia Elkartearen Asanblada Orokorra; bertan Zuzendari Batzordeari eskatu zitzaion txosten publiko baten bidez adierazi zezala Praileaitz I eta bere ingurua babestu beharra.

2007-IV-2. ETB-1eko Kalaka programako ekipoa kobaren inguruetan irudiak grabatzen ari zirenean Guardia Zibila agertu zen eta talde guztia identifikatu zuen. Programa apirilaren 12an emititu behar zen, baina, arrazoi ilunak tarteko, saioa atzeratu egin zen maiatzaren 31ra arte (hauteskundeak pasatu arte).

2007-IV-11. Noticias de Gipuzkoa, Gara eta beste egunkari batzuetan agertu zen Gipuzkoako Foru Aldundiak indusketa aldi baterako geldiaraztea eskatu zuela.

2007-IV-20. Xabier Peñalverrek eta Sonia San Josek hitzaldi bat eman zuten Deban. Ia 100 pertsona batu ziren eta bertan kobak dituen arriskuak adierazi ziren. Kobaren inguru guztia babesteko eskatu zen eta guztiaren balioa indarrean adierazteko proposamenak luzatu ziren.

2007-IV-23. Gara egunkarian Aranzadiren komunikatu bat agertu zen, kobak jasan dituen kalteak jakiteko azterketak beharrezkoak direla esanez. Behar-beharrezkotzat jotzen du indusketekin jarraitzea baina horretarako harrobiaren itxituran sartzeko baimena eskuratu behar du.

2007-IV-27. Eusko Jaularitzak Diario Vasco egunkariko orrialdeetatik adierazi zuen Praileatz I-en Babes kulturala adierazteko dekretoa edozein momentuan argitaratuko dela (oraindik zain gaude). Aranzadi Zientzia elkarteak bere proposamena egingo zuela esan zuen.

2007-IV-24. Zeleta S.L. enpresak (Amenabar taldea) Eibarko erregistroan esplotaziorako 6 meatze kuadrikula erregistratu zituen, planoan agertzen diren koordenatuak hartuta 160 bat hektareako zabalera hartuta.

2007-V-4. MNTk Industria Sailari eta Ingurumen Sailari aldi baterako geldiaraztea eskatu zien, gure argudioak ingurumenaren gainean duen eraginari buruzko adierazpena indargabetuta geratu dela azterketa egin zenean margoak ez zirelako ezagutzen. Ko-

Solé Diesel
nanni diesel
YANMAR
Ondo pasa
Malenak!
DOISTU
ITSASOKO MOTORREN ALDAGAIAK eta KONPONKETAK
Nasa Kalea. 5 - 20830 MUTRIKU - Gipuzkoa
Tfnoa.: 943 603872 / Mugikorra: 659 670233 / Faxa: 943 603078

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

piak bidali ziren Foru Aldundira, Debako Udaletxera, Aranzadira, Debegesara eta Ingurugiro Fiskaltzara. Debegesaren isiltasunarekin harrituta, batzarra eskatu genuen gure ikuspuntua adierazteko.

2007-V-9. Praileaitzen Lagunak taldeak "Praileaitz I" liburua argitaratu zuen, 210 artistaren kolaborazioarekin. 35 eurotan dago salgai.

2007-V-10. Praleaitzen Lagunak taldea Miren Azkarate Kultura sailburuarekin batu zen Gazteizen, gero Debako Alkatearekin batu ziren.

2007-V-11. Hitzaldia Donostiako Koldo Mitxelenan, Praileaitz I topatu zuten Munibe Taldeko Mikel Sasieta eta J.M. Arruabarrenaren eskutik. Praileaitz I-en inguruan gutxienez beste 72 kobazulo garrantzitsu daudela adierazi zuten. Aurkezpenaren amaieran, Aranzadik Mikel Sasieta saritu zuen, bere bizitzan egin duen lan izugarriaren errekononimendu bezala.

2007-V-14. Iturri oso fidagarrietatik jakin genuen Eusko Jaularitzak eta Amenabar enpresak paktu bat sinatu zutela. Prozesoa hozten laga nahi dute eta gero babes eremua ahal den eremu txikienera mugatu, kobaren inguru guztia ustiatzeko.

2007-V-16. Deba aldizkariaren 66. zenbakian Praileatzen editoriala eta historia guztia agertu ziren.

2007-V-16. Egunkarietan ez zizkiguten eskutitzak argitaratu, baina Eibarko Cadena Ser-en Praileaitzi buruzko elkarrizketa bat egin ziguten MNTkoei.

2007-V-19. Lakuan Harrobi zuzendaritzakoak, Ingurugirokoak eta Kultura Sailekoak elkartu ziren gaiari irteera bat ematekotan. Emaitzak ikusirik argi geratzen da zein den Eusko Jaularitzan indarra daukaten sektoreak eta zeintzuk dauden haren menpe.

2007-V-25. Praileaitz I-en azpiko aldean beste koba sarrera bat aurkitu zuten. Ez dute deskartatzen gehiago aurkituko direnik. Arkeologoek ez dute harrobi jabeen baimenik hau aztertzeko.

2007-V-24. Aranzadi Zientzia Elkarteak prentsaurrekoa eman zuen bere txostena aurkezteko. Koba eta inguru zabal bat babestea proposatu zuen, koba dagoen ezponda guztia. 17 orriko txostenean izugarrizko garantiza eman zitzaion aurkikuntzari. Arkeologia Interpretazio Zentro bat egitea proposatu zuten. Komunikabide guztiek eman zuten honen berri.

2007-V-24. Debako Praileaitzen Lagunak elkarteak Miren Azkarateri eskatu zion Kobaren eta inguruaren Babes ofiziala dekretatu zezan.

2007-V-29. Xabi Oterori (Praileaitzen Lagunak) elkarrizketa egin zioten Radio Euskadiko "La Casa de la Palabra" saioan.

2007-V-31. MNTk Ingurugiro Fiskaltzaren aurrean salaketa jarri zuen, Aranzadiren txostena aurkeztu zuen eta aldi baterako geldiaraztea eskatu zuen txikizio arrisku handia zelako.

2007-V-31. Kalaka saioan Praileatzen gaia tratatzen da (hauteskundeak pasa dira).

2007-VI-6. Praileaitzen Lagunak Miren Azkarate eta J.J. Gonzalez de Txabarriren dimisioa eskatu zuten.

2007-VI-8. MNTko kideak Debegesako gerentea, turismo eta ingurugiroko arduradunarekin batu ziren.

2007-VI-14. Eztanda "kontrolatu" baten ondorioz harri puska handiak amildu ziren N-634 bidera. Hedabide askotan agertu zen berria.

2007-VI-16. Zestoan batu ziren J.J. Gonzalez de Txabarri, Miren Azkarate eta Imanol Agote (GFA Kultura zuzendaria) Gipuzkoako Prehistoria museoa Zestoan egingo dela esateko. Txabarrik, bere azken deklarazio publikoan, Praileaitzen Lagunen bi kideri txorakeriak aurpegiratu zizkien. Beste politiko biek harrobi indusketaren aurrerapenetan jartzen dute beren sinismena gure patrimonio arkeologikoaren babesa adierazteko

2007-VI-17. Prentsan Debako alkatearen adierazpenak agertu ziren, Praileaitzen babesaren aldeko mozio bat proposatzeko intentzioa agertuz.

2007-VI-7. Debako Udaleko Plenoak proposamen bat onartu zuen aho batez Praileaitz I-en eta bere inguruaren babesaren alde, Aranzadiren txostena bere hartzen du eta Parke Arkeologikoren ideiarekin ere bat egiten du. Kontuan hartu behar dugu Gipuzkoako Goi Paleolitikoko aztarna gehienak Deban, Mutrikun eta Mendaron dauzkagula eta "Dordoña Txiki" bezala ere ezagutzen hasi dela inguru hau.

2007-VI-29. Garan eta VI-30ean Noticias de Gipuzkoan Praileaitzen Lagunak "Praileaitz I, mas cerca de Nerón" eskutitza argitaratu zen ekainaren 6an Txabarrik eta Azkaratek zuzendu zieten akusazioei erantzuteko, bertan adierazi zen instituzioek babesaren epeak luzatu besterik ez zutela egin, patrimonioaren defentsan aritzeko eskatu zitzaien politikariei eta instituzioei.

Gaur egun oraindik Praileaitz I-ek ez dauka babes ofizialik, ez dago monumento gisa izendatuta eta txikizio bat gertatuko balitz juridikoki inor ez litzateke arduradun izango.

Ezagutzen gaituztenek badakite ez dugula inola ere etsiko babesaren helburua lortzekotan, bide berriak aztertzen ari gara eta ez hori bakarrik, baita ere hasi gara pentsatzen nola errekuperatu harrobiak lagako duen zuloa.

Bat egiten dugu Aranzadik proposatu duen Arkeologia Parkearen ideiarekin, baina instituzioetan eduki ditugun "lagunak" ekainaren erdialdean Zestoan arkeologia museoa irekiko dutela adierazi ondoren, ideia horren osagarri izango liratekeen beste proposamen batzuk luzatuko ditugu.

Ez dugu ahaztu behar Sasiolako monasterioa hortxe bertan daukagula, bere pelota Joao harrigarri eta guzti, eta ziur gaude Astigarrabixan etorriko diren indusketek oraindik poz asko eman behar digutela.

Arkeologia, artea, nekazaritza eta abelzaintza bateraturik, proiekto oso interesgarria landu daiteke. Proiektu bat turismo puntu interesgarri bihurtzeko zonalde hau eta erakargarria eta berriztagarria politikoen sostengua lortzeko.

Baina gogotik landu beharko genukeena gure arteko abeltzain eta nekazariekin azpalditik dauzkagun zorrak kitatzeko erak eta baita merkataritza etiko eta solidaritzaren ikuspuntua.

Ikuspuntu desberdinak, jende askoren ekarpenak eta borondate zakukada bat elkartuta gauza eleganteak lortzeko aukera egoten da. Begira Ingalaterrako hegoaldean zelako aldaketa eman zioten ustiaketa bukatu zitzaion harrobi zaharrari.

MUTRIKUKO NATUR TALDEA

PINPIRIN

Maider Pinto
Barrenkalea, 9 behea Tel:943 603 420 / mug.:650 341 768

koadrila afariak, bazkariak, bataioak,
eguneroko menua
aupa Maten jaiwak!

HONDURASETIK ESKERRONA ADIERAZTERA

Felix Mariezkurrena, apaiz Pauldarra, oporretan izan da gure artean eta Mutrikuko udalaren eta zenbait herritarren dirulaguntzei esker Honduraseko herriska txiki batean eraikitzen ari diren eskolaren argazkiak erakustera etorri zaigu.



Kontaguzu nola joan diren eraikitze lanak.

Berandu hasi ziren, eguraldi txarrak ..aginda, baina bukatzear dago San Francisco eskola. Auzolanean egin dute gehienat; bakoitzak tarte bat zuenean edo ahal zuenean egiten zuen lan eskolaren eraikuntzan. Argazkietan ikus dezakezuenez, ia bukatuta dago kanpotik. Barruko banaketa eta lurra falta zaio, eta baita pintatzea eta altzariak ere.

Nolakoa da herria?

Oso herriska txikiak dira hangoak, gehienez ere 95en bat biztanle izango dituzte. Herririk handienetan ere 400/500 lagun baino ez dira bizi. Jendeak alde egin beharra izaten du lan bila herri handiagoetara eta, askotan, atzerrira; Estatu Batuetara, batez ere. Mexicotik joaten dira, eta, jakina, legez kanpo sartzen dira. Familiutzi, seme-alabak utzi eta joaten dira... bizirik iritsiko diren ere jakin gabe.

Han, lantegiei "maquila" deitzen diete. Mendiko herrisketan ez dago maquilarik. Maquila horiek atzerritarrek zabaldutako lantokiak izaten dira, bertako eskulan merkeak erakarritako inbertsioei esker eraikitako lantokiak. Normalean, arropa josteko tailerrak izaten dira eta horrelakoren bat zabaltzen dutenean, bertara joaten da inguru guztietako gazte jendea lan egitera, eta bertara joaten dira bizitzera ere. Han ez dago hemengo konturik: ez dute gizarte segurantzarik, ez asegururik, ez besterik... Han gaixotzen denak mediku partikular batengana joan behar izaten du eta berak ordaindu dena.

Zein da euren lehentasuna?

Egunero bizitzea, horixe da euren lehentasuna. Bihar zer egingo duten? Ez dakite, eta gaurkoarekin bizi dira.

Guk 64 herriska atenditzen ditugu. Hori Bizka-

> **Uztailean amaituko dute eskola eraikitzea"**

ERDIKO
Merzeria
Kinkilak, azpiko arropak, hariak, artilea...
Malen jai zoriontsuak opa dizue
Erdiko kale 12 - Tel. 665 715 039

> **"Egunero bizitzea, horixe da euren lehentasuna"**

ia osoa hartzea bezalako da, lurraldeari begiratuta. Hiru apaiz gaude, baina batek 70 urte dauzka eta ez da mendira joaten. Autoak ere badauzkagu; ez da dena oinez egiten, baina zenbait herriskatara oinez joan behar da. Nik egin dudan ibilbiderik luzeena goizeko 6:00etan irten eta eguerdiko 12:00etan iristea izan da; beste guztiak ez dira hain luzeak izaten. Gehienetan egunean bertan egiten dugu joan-etorria, baina urruti daudenetan gaua bertan pasatu behar izaten dugu (elizan egiten dugu lo, banku gainean edo, bestela, lurrean)

Joaten al da laguntzaile seglarrik zuen misio-lurraldera?

Orain arte Medicus-Mundi egon da han lanean. Gure seminaristak ere joaten dira han zer egiten dugun eta nolakoa den ikustera. Guk han ez daukagu lekurik inoren kargu egiteko. Inor joaten bada, lan edo proiektu jakin batean aritzeko izango da, osasun arloan batez ere, baina gehienbat, gure seminaristak joaten dira.

Zer egiten duzu oporretan?

Denetik pixka bat: familiakoekin eta egon, proiektuen inguruko kontu emateak egin (zer egiten ari garen, hurrengo urterako zer nahi dugun...) Esaten dute apaizek eskatu egiten dutela... eta guk ere horixe egiten dugu, gure proiektuetarako beharrezkoa delako.

Zer daukazu orain esku artean?

Eskola berriak egitea. Bost eskola dira proiektuan daudenak. Hango lehentasunen artean dago irakaskuntza. Eta, gero, osasuna; horretan ere bagabiltza laguntzen eta gauzak egiten. Liburuak, koadernoak eta materiala ere behar da. Ez ditugu eskolako materialak opari ematen; geuk erosten ditugu eta gero bere balioaren hamarren batean edo banatzen ditugu familiarik pobreenen artean. Merke, baina zerbait ordainduta; eurek ere euren partea jarri behar dute eta kosta egiten dela ikusi behar dute.

Eskolak eraiki ondoren, irakasleaz eta, beraiek arduratu behar dira, bertako munizipalidadearen bidez.

Orain, beste proiektu baten ardura ere badaramat: 200 ikasle heldu dauzkagu. Programa horrek aukerarik izan ez duten gazte eta helduei oinarrizko heziketa jasotzeko modua ematen die. Igande goizetan ematen dira klaseak, eta borondatez lan egiten duten irakasleak dauzkagu. Ikasle gehienak emakumeak dira, jakina, eta ezkonduak. Askotan kostatzen zaiguna senarraren baimena lortzea izaten da. Horregatik izaten dira klaseak igande goizetan. Batzuk goizeko 4retan jaikitzen dira 8etarako eskolara joateko...

Bukatzeko, zure mezua...

Beti esaten duguna: toki guztietan dagoela beharra, baina hemen badagoela laguntzak non eta nori eskatu (udala, diputazioak...) Han, berriz, ez. Guk han denei laguntzen diegu, sinistunak izan ala ez.

Maitasun gutuna institututik

Azken urteotan bezala, aurtengoan ere Euskara-eguna ospatu zen Mutrikuko Institutuan. Beste hainbat ekintzaren artean, gero eta indar handiagoa hartzen doan maitasun gutunen lehiaketa antolatu zen, nahiko partaidetza politarekin. Lan ugari eta onen artetik bat aukeratzea erraza izan ez bazen ere, epaimahaiak kategoria bakoitzetik bana hautatu behar: DBHn euskarazko eta gaztelaniazko onenak eta Batxilergoan beste hainbeste. Horietako batzuk Galanixan aldizkarian agertu ziren. Oraingoan, Batxilergoan irabazle gertatu zen lana doakizue, aurretik aipatutako kalitatearen adierazgarri eta baita guztiontzako gozagarri ere.

Azkenean iritsi zen eguna, irrikatan nengoen. Pisu zaharreko trasteak jaso, guztia garbi-garbi utzi, kaxak autoan sartu eta garai berriari agur egin nion atzerako ispiluan neure buruari irribarre bat eginez.

Etxe berrirako bidean supermerkatu batean geratu nintzen afaltzeko zerbait hartzeko: Garagardo kaxa bat, prestatutako janaria, iogurtak... eta "after-eight" izozkia, zure gustukoena! Ordaintzean %50eko deskontua zuten film zaharren artean, zineman batera ikusi genuen lehenengoetako bat (bai, sarrera zuk ordaintzen zenidan garaietako bat) topatu nuen. Hamabost urteko neskatila nirudien, gidatzen nengoela irratiaren bolumena igo eta mugikorrera deitu zintudan, ez zenuen hartu, aitzitik, erantzungailua atera zen: *"Epa! ezin dut hartu mugikorra, zerbait behar izanez gero utzi mezua eta deituko zaituztet beranduago, eskerrik asko!"* "Neu naiz, hogei minututan hor nago. Egon al zara pisuko anderearekin? Esan al diozu iturriak ez dabiltzala ongi? Erosi dut afaltzeko zerbait, eta... sorpresa! Hartu dizkizuet eskiatzera joateko billeteak, esan dit tipoak..."

Kamioia ia aurreratuta nuen eta orduan, ezerezetik kontrako zentzuan kotxe bat atera zen. Eskuinaldera biratu nuen bitan pentsatu gabe, sekulako txilioa bota zuten erruberek, lurrean etorkizunaren irudia marrazten zutelarik. Errepidean trabeska geratzearekin batera eskuinaldera begiratu nuen, sinetsi nahi ez nuenaren testigu izateko: kamioia gelditzen hasi, baina nire autoa jo zuen indar guztiarekin hainbat metro aurrerantz bidaliz BUM!!! Begiak zertxobait zabaldu eta laino batean banintz, zerbait hotza nabaritu nuen lepotik behera. Odola zen. Berriro esnatu nintzenerako hilabete pasatuta zegoen eta ospitaleko ohe zurian nengoen.

Tik-tik-tak... Euria ari zuen kanpoan, tik-tik-tak jarri zidaten sueroaren tantak, tik-tik-tak aurpegitik hasi eta bularrera erortzen zitzaizkidan zure malkoak. "Ez laztana, ez egin negarrik, zurekin nago, ez al nauzu ikusten?" Orduan konturatu nintzen ez ninduela entzuten nahiz eta ikusi, eta nik, ordea, alderantziz.

Lehenengo bi egunetan malko horiek amaigabeak izan ziren, nire azalak guztiak xurgatzea lortu zuen arte. Zure zaporea zuten, gazia batzuetan, gozoa beste askotan. Laugarren egunean medikuarekin batera agertu zineten nire gurasoak eta zu gelan: "Ez dakigu zenbat denbora eman dezakeen horrela, egunak, hileak, urteak... Lehenago ez badu... Behintzat" "Zuek! Hemen nago, hemen!" Ezin nuen sinetsi, nola ez nuela lortuko, hor nengoen!

IXURDI informatika
ixurdi@terra.es
Ibaiki dauna 3/
Tel. 94 683 27 93
Ondarroa / 48700 / Bizkaia
Barrenkale 3
Tel. 943 60 70 58
Mutriku / 20830 / Gipuzkoa

JATETXEA
ERRETEGIA
- Enpresa bazkariak
- Bataio, Jaunartze, Ezkontzak
- Sagardotegiko menua
- Kuadrilako bazkari-afariak
-Eguneroko menuak
Kalbario gaina, 1 - Tel.: 943 60 45 62 / 699 61 14 24



Begiak irekitzea zen guztia: Zurekin eta txakurrarekin portuan buelta bat emateko, zurekin eta lagunekin kafea hartzera joateko, zurekin larunbatetako parrandak botatzeko, bi hilabete besterik egin nituen lanpostuan jarraitzeko, zurekin pisuaren alokairua lehen aldiz ordaintzeko, zuk mugikorrera bidaltzen zenizkidan mezuak jasotzeko, gure ohean lo egiteko... baina, hainbeste pisatzen zuten begi haiek, hainbeste!!!

Medikuak esandakoa eta gero atearen dunbara. Gela hutsa bezala zegoen, zure presentziaren berotasunaren falta nabari nuen, eta ahotsak baxuago entzuten hasi nintzen, eta begiek pisu gehiago hartu zuten, eta euria biziago botatzen hasi zen tik-tik-tak tik-tik-tak tik-tak tak tak tak... Gau haiek izan ziren zail eta hotzenak, euritsuenak.

Astebete zen nire loaldia hasi zenetik eta itxaropen handirik ez nuen, hori zioten, behintzat, ni ukitzean eskua izozten nien medikuek. Baina gau hartan ateri egin zuen eta gorputzetik ihes egin zidan beroa berreskuratzen hasi nintzen. Usain hura... bai, ezaguna nuen... babestuta sentitzen nintzen. Laster nire eskua heldu zuen zure esku beroak, eta beroaren beroaz ezpainak more izatetik gorri-gorri eta musu eman zenidan orduan eta biriketako airea bikoiztu zitzaidan. Instante hartatik ez zenidan hozten utzi.

Eserleku zahar hartan eman zenituen gauak, arratsak, berriz, leihotik eguzkiaren bila. Egun batean hitz egiten hasi zinen arte. Erdian utzi nuen liburua irakurtzen zenidan aldika, jarraitzen nuen telesaileko gertaerak kontatzen zenizkidan, beti bezala nolako eskasa zen gehituz, edo lagun eta familiaren arteko kontuen berri ematen zenidan. Esnatzen nintzenean egingo genituen bidaiak, ekintzak errepikatzen zenizkidan behin eta berriz, zeure buruari animuak eman nahian, nahiz eta zu ez konturatu.

Zenbait gautan, korridoretik inor ez zebilela egiaztatu eta nirekin lo egin zenezakeen galdetzen zenidan, belarrira "mese mese mese" hiru aldiz errepikatuz. Orduan gogoko nituen abestiak jarri eta goitik beheraino musukatzen ninduzun. Emeki-emeki, portzelanazkoa banintz bezala, gorputzeko alde guztiei bizia eman nahiko bazenie bezala. Oinetatik kopetaraino, kopetatik sabelera, bertan burua jarri eta pare bat orduz loak hartzen zintuen arte. Ondoren jadanik amaitua zegoen musika itzali eta betiko eserlekuan lo egiten saiatzen zinen, hasieratik lortuko ez zenuela jakinda. Jertsea hartu eta alde egiten zenuen pare bat orduz, goizerako nire ondoan egon behar zinen eta.

Zure errituala burutu zenueneko goizalde batean, ospitaleko bidean zeundela jertsea kendu, begiak erdi itxita eta autoko leihatila zabaldu zenuen; eguzkia atera berri zen, eguzkia. Stop-a salto egin eta azeleragailua indarrez zapaldu zenuen. Ospitalerako sarrera kotxez beterik zegoen, ez atzera ez aurrera, buelta erdi eman eta izkina batean aparkatu zenuen. Berrehun metroak korrika eta ate parean zeuden pertsona multzo bati bultza eginez korridore artean galdu zinen, eskailerak binan-binan igo eta gelako atea bortizki zabaldu zenuen...

Han ez zegoen inor. Sueroaren tutua lurrean, ohea zimurtuta... Leihorantz begira zegoen eserlekura abiatu zinen. Leihotik eguzki gezurtiari zuzen begiratu nahi zenion kontuak eskatzeko, baina beste zerbaitek deitu zizun atentzioa:

Kristalaren erreflexuan, katez itxita egon ziren begiak, mahaitxoan egon ohi zen liburu lodia irakurtzen zeuden, oraindik ospitaleko soinekoa aldean zenuela.

AINARA ETXEARTE

Ondo pasa Malenak!!
Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

zorion agurrak

IRAIA
Zorionak eta muxu handi bat uztailaren 21ean urtea egiten duzulako.
Aiton-amonen eta osabaren partez, zorionak!

IRATI
Zorionak nere jardiñeko beste larrosiai zure 10. urtebetetzean. Orain bezalako ederra jarrai dezazula hazten. Angie, aita, Jone, amona eta tia Estherren partez.

ESTHER
Zorionak gure lehenengo maramiai, da... ia parejia noiz presentatzezun! Irati, Angie ta etxekuen partez.

TIA PILAR
Zorionak Arrieta-tar Maria Pilarri. Alai eta adoretsu igaro dezazun beste 25 urte gitxienez.

ONEKA
Gure etxeko ponpoxari bere 6. urtebetetzean, Zorionak! etxeko guztion partez, batez ere, Izaroren partez.

IRAIA
Zorionak politxa. Gure larrosiak 3 urte betetzen ditu dagoeneko. Uztailaren 19an txokolatada eder bat prestatu eta ondo ondo pasatuko deu. Matxo asko etxeko guztion partez.

GARIKOITZ
Zorionak! uztailaren 3an zure urtebetetze eguna izan delako eta muxu asko famili osoaren partez; batez ere zure emazte eta alabaren partez.

AMONA
Zorionak
Super amona!
Zu gabe zer egingo genuke? Bihotzez Beñat, Manex, Urtza eta Onintza.

MADDI
Abuztuaren 6an, zure lehenengo urtebetetzean, Zorionak familiaren partetik. Neska txintxoa eta alaia izaten jarrai dezazula.

IÑIGO
Urtero bezela, lege zaharrian, danborradaren aurretik beti datoz kantinera eta aguadoreak, gero gastadoreak... ta zu nun? Zorionak.

MAITE
Maite maitea, zu zara adorea, zu zara barrea, zu zara gurea. Zorionak!

MARKEL
Artista bat eginda zaude. Jarraitu horrelaxe, FENOMENO! Zorionak denon partez, eta ondo-ondo pasa!

AITXONA-AMONA
Zorionak tortolitos! 47 urte pasau dia ezkondu ziñatenetik, baña lelengo egunian bezelako elegante segitzezue! Matxo asko danon partez, batez ere biloban partez!

ELAIA
Hiru urte potolo bete dituen gure pinpirinari Zorionak eta mila koloretako muxuak familia osoaren partez.

NEREA
Zorionak zuri, zorionak zuri...! Abuztuaren 4an 9 urte beteko dituzulako, zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partez, batez ere Lander eta Lideren partez.

JOSEBA
Txima hauekin urtetik urtera gaztetzen zoazela dirudi jefe! Hik bai hi, meritxua... Beste urtebeterako eskatu pazientzia, akolitxo kuadrila honekin jai dago ta! Zorionak eta eutsi goiari!

Inor zoriondu nahi baduzu, ekarri argazkia Luardora eta guk hemengo txoko honetan sartuko dugu!
(Baina ez etorri abuztuan oporretan egongo gara-ta!)

Mª Pilar Barruetabeña
merkatu plazako loradenda

Landareak, koroak, lore-sortak, opariak, ongarriak...

Tel.943 60 44 96 - 636 873 812

BARE BARE
TABERNA
gosariak, pintxoak, bokatak...
etorri gurekin Malenak giro onean pasatzera!

argazki zaharrak

1922ko MALENAK:
1922ko Malen jaixetan zezenketa Txurruka plazan.

ANA MARI. Ana Maria Lezertua eta Maria Angeles Sustaeta Malen jaixetan.



TIOBIBOA. Malenetan tiobibo aurrian, Jose Mari Galparsoro eta Ana Maria Lezertua.

Kalaputxi egiten parte hartu nahi baduzu deitu: 635 748 393

Uztailaren 21etik 25era

MALEN JAIAK

Uztailak 28, zapatua

ROCK KONTZERTUA:
STUPENDA JONES + FLIPING FOLKS
Txurruka Plazan, 23:00etan

Uztailak 30, astelehena

ERTZANTZAREN MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
Txurruka plazan, 23:00etan

Abuztuak 4, zapatua

20:00etan, Zabiel plazan
KUKO, TRUKU ETA BOLENWAIDER PAILAZOAK

23:00etan, Txurruka plazan
MUSIKA KONTZERTUA: EUSKAL ABESTI ZAHARRAK

Abuztuaren 10etik 19ra

Roberto Landetaren **AKUARELA ERAKUSKETA**
Zabiel kultur etxean

Abuztuak 11, zapatua

"CAPILLA PEÑAFLORIDA" TALDEA
Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan
Santa Catalina Komentuan, 23:00etan

Abuztuak 18, zapatua

THE BEAT-LESS TALDEA
Txurruka plazan, 23:00etan

Abuztuak 25, zapatua

MARKELIÑE ANTZERKI TALDEA: "Carbon Club"
Txurruka plazan, 23:00etan

irailak 1, zapatua

ERDI AROKO AZOKA

irailaren 13tik 16ra

KALBAIXO JAIAK

2007ko MENDI IRTEERAK

Irailak 9, domeka

Cruz de Motrico (851 m.) Burgos

Urriak 7, domeka

Lizarra – Montejurra (1.044 m.) – Villamayor de Monjardin (893 m.) – Urantzia. Nafarroa

Azaroak 18, domeka

Artikutza – Mendaur (1.131 m.) - Arantza Nafarroa

Abenduak 2, domeka

Lekeitioko itzulia eta bazkaria. Bizkaia

Antolatzaileak: Mutrikuko Burumendi, Ondarroako Aurrera, Lekeitioko Lumentza, Markinako Alpino eta Debako Burdin Kurutz mendi elkarteak.

2007KO ODOLA EMATEKO EGUNAK

Egun guztietan, Anbulategian, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte
Abuztuak 10, barixakua
Urriak 5, barixakua
Abenduak 21, barixakua
Antolatzailea: Mutrikuko Odol Emaleen elkartea

BAR TXOKO MUTRIKU
Bokatak
Hanburgesak
Sandwichak
Pintxo morunoak
...eta nahi duzuna
Ondo pasa Malen jaixak!

CAMPING SATURRARAN
HONDARTZATIK 100 m-tara
Aupa Malen jaixak!
TEL.: 943 60 38 47 MUTRIKU

Edari biltegia
ONDO PASA MALEN JAIXAK!
Iñarrairaegi
Tel./faxa: 943603938 · Etxekoa: 943603893 · Sakelekoa: 609413306 · "Mendi azpi" · 20830 MUTRIKU

ARAN
ESTETIKA

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak.
- Masajea.
- Pedikura.
- Manikura.
- Portzelanazko atzazkalak.
- Mikropigmentazioa.
- Depilazioa.
- Laserra.

KOSMETIKAN, PRODUKTU NATURALAK.
BETILEAK LUZATZEA.
DIETETIKA ETA NUTRIZIOA. KONTSULTA DOAN.

Goiz eta arratsaldetan zabalik

Zabiel Plaza - Mutriku - Tel.: 943 60 44 93

Abentura gustatzen zaizu?

Quadean ibilaldi gidatuak antolatzen ditugu

> Gogoko duzuna quadean ibiltzea bada, ez galdu aukera, jarri proban zure gidari abileziak.

> Motorrak homologatuta daude bi pertsona eramateko eta, horietako batzuk, txikienak eramateko prestatuta daude.

> Koadrilentzako, despedidetarako, enpresen pizgarrietarako ezin hobea.

> Aseguruak, kaskuak, uretako jantziak e.a. barne.

Aita Lertxundi kalea, 22 behea (autobus geltokian) - ORIO
TEL: 664 25 95 65 / 664 25 94 39 FAX: 943 13 48 53 www.quadorio.com

EQA

malenak kalbaixuak

MUTRIKUKO JAIAK 2007

Mutrikuko Udala